

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 5,2 milioiko laguntzak emango dizkio nekazaritza-sektoreari mendiguneetan eta muga naturalak dituzten eremuetan

Laguntzak % 50 igo dira 2018an, eremu horietan dauden ustiategiak lehiakorragoak izan daitezzen

Asteazkena, 2018.eko martxoak 28

Mendiguneek eta muga naturalak dituzten eremuek laguntza ekonomiko handiagoa izango dute, eskualde horietan dauden nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien bideragarritasunari eusteko dauden zailtasun gehigarriak konpentsatzeko. Gaurko gobernu-bilkuran, Nafarroako Gobernuak 5,2 milioi euroko gastua onartu du, 2015-2020 aldirako Landa Garapenerako Programaren (LGP) baitan.



Mendiguneentzako eta muga naturalak dituzten eremuentzako 2018ko laguntzak.

Programa horretan egindako aldaketaren ondoren, foru-komunitateko lurralde gehiena kategoria horietakoren batean katalogatuta geratu da. Zehazki, Nafarroako azaleraren % 85 goi-mendiko eremu, mendigune edo muga naturalak dituen eremu gisa dago katalogatuta. Guztira, 231 udalerritan barreiatutako 855.000 hektareak baino gehiagok dute laguntza horietako bat jasotzeko eskubidea.

Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak % 50 igo zuen 2017an laguntza horien zenbatekoa, eskualde horietako ustiategiak lehiakorragoak eta bideragarriagoak izan daitezzen, eta ez daitezzen bertan behera utz. Hala, landa-eremuetako populazioari eusten lagundu nahi da.

Europar Batasuneko erregelamenduak xedatzen duenez, konpentsazio horrek honetarako balio behar die nekazariari: nekazaritza-lurrak erabiltzen jarraitzeko, naturagunea kontserbatzeko, eta kaltetutako eremuetan nekazaritza jasangarrirako sistemak mantentzeko eta sustatzeko, lurrak abandona ez daitezzen eta biodibertsitatea gal ez dadin. Haien lanak itxura ematen die eta kontserbatu egiten ditu landa-paisaia eta nekazaritzaren eta basogintzaren mende dauden ekosistemak, eta erabilera-ezak eragin dezakeen narriaduratik babesten ditu.

231 udalergi

[Goi-mendiko eremuan](#) sartzen dira Pirinioetako haranak (Aezkoa, Salazar, Erronkari Nabaskoze, Erro, Auritz, Luzaide), Baztan-Bidasoa eta Aralar (Leitza, Aaritz...). Laguntza-modulua 106,55 euro da hektareako.

[Mendiguneetan](#) (Esteribarko, Ultzamako, Basaburuko, Larrauneko, Longidako, Leozko, Kodesko eta abarretako 74 udalergi), konpentsazioa 77,39 euro da hektareako.

Azkenik, Erdi Aldeko eta Lizarrerriko 88 udalergi [muga natural](#) esanguratsuak dituzten eremuetan daude, aurreko mugaketan baino 32 gehiago. Mugaketa berri hau aurten, 2018an, jarri da indarrean.

LGPn “alde behartsuan” dauden eta katalogazio berri honetatik kanpo geratu diren bederatzi udalerrietako nekazariak eta abeltzainek Landa Garapeneko Departamentuak onartu duen laguntza iragankor bat jaso ahal izango dute, eta, horri esker, ahalik eta gehien murriztuko dituzte neurriak ekar ditzakeen kalteak.